



DANI BLANCO

## Kontakizun bakarra

Joxemari Ostolaza

ARGIAKO KOLABORATZAILEA

ETAren armak eskegitearen harira, handik eta hemendik ari zaizkigu esaka kontakizun bakarria behar dugula bakea egiazkoa eta iraunkorra izango badugu. Eta ni, horrelako baten umea izanik, ez nuke nahi nire ondorengoak holako baten pean heziak izan daitezen. Izan ere, gure haurtzaroan *escuela nacional* deitu haieten “*a cubrirse ar, firmes ar, viva España, alzad los brazos hijos del pueblo español...*” genuen eguneroko gosaria. Gogoan dut bizi-bizi, Pio XII.a aita santua hil zeneko urtea, Donostiako Artzain Onaren katedralean haren aldeko meza kantatzeagatik etxeratutako nire lehen itxurazko jorrala, Jaime Font de Andreu gotzaia eta Jose Cruz Sudupe Larrañaga bikarioa zirelarik. Ordurako etxe-ko hizkuntza, euskara, galdua nuen, ez nuen nahi “cashero” izan eta erdarak modernizatzen ninduen. Bagenituen inguruan euskaldunak, sekulako burlak jasan behar izaten zituztenak beren gaztelaniazko azentuak salatzten zituztenak. Ni ere haien defendatzaile baino burlatzailea ninduzuen, garaiko munduak hala eskatuta, nire ustean. Eskoletatik hasita, gure mundua kanpamendu falangista espainola zen, kiroletan ere, Falangeak agintzen baitzuen eta handik kanpo ez zegoen deus. Euskara abandonatuta, gurasoak eta aitona-amonak bereziki behartzen nituen gaztelaniaz mintzatzera, “gaur edo bihar konturatuko haiz...” esaten zidaten bitartean. 1965ean izan nuen ETAren berri, ni bezalaxe erdaldundutako koadrilan atxilotetak izan zirenean. Kolpe izugarria izan zen. Komisaria eta Manzanas. Tortura. Dena aldatu zen gure munduan, kanpamendu izandako hartan. Ordurako tailerreko apendizak ginen, gure eskubideak ezagutu eta irabazteko ahaleginetan bilkurak egiten hasiak ginen. Euskara ikastea izan zen lehentasuna hartu zuena nire bizian. Lehen gaueskola muntatu genuen auzoan, hogeita hamaseiko gerraz informazioa biltzen hasi ginen, “casheroa” izan nahi nuen. Euskaraz mintzaten zen gaztea, berez, balio handikoa zen gure artean. Gure mundua eraikitzen hasi ginen, gaueko ikasketa teknikoak, kirola eta musika baztertzen genituelarik. Kanpamendu autopista utzi eta bide alternatiboen bila genbiltzan, kanpamendutik at guztia zen alternatiboa. Bestelako kristauak ezagutu nituen, Elizarekin bat ez zetozenak eta guk bezala mundua errotik aldatu nahi zutenak. Marxismoarekin egin genuen topo, eta eskola sozialetan ikasten jardun genuen zenbait hilabetez. Lehen militante liberatuak ezagutu nituen eta haiekin bat egin. Urteak joan eta orain kontakizun bakarria adostu behar omen dugu gureak eta besteenak elkarren osagarriak bailiren. Zintzoagoak, solidarioagoak, aurrerakoiak izan nahi izan dugu eta horretan eman ditugu gure urteak. Euskaldunak izatea behintzat lortu dugu eta euskaldun inguruan bizi gara nahiz erraza ez dugun. Eta kontraerari bagagozkio, ez dut gurasoarena eginen, ez naute mututuko eta gureaz blaituko ditut bazterrak, zoriotsu izateko balioko dielakoan, bestelako mundua bilatzeak eta horretan saiatze hutsak zoriotsuagoak egiten gaituela jakitun.



Urteak joan eta orain kontakizun bakarria adostu behar omen dugu gureak eta besteenak elkarren osagarriak bailiren. Zintzoagoak, solidarioagoak, aurrerakoiak izan nahi izan dugu eta horretan eman ditugu gure urteak. Euskaldunak izatea behintzat lortu dugu eta euskaldun inguruan bizi gara nahiz eta erraza ez dugun

